

PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

DOKUMENTU LAGUNGARRIA: PROPOSAMEN TEKNIKOAREN ATAL BAKOITZEAN ESKATZEN DEN INFORMAZIOAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA

HITZ ZENBAKARRIEN GEHIENENKO KOPURUA 35.000 IZANGO DA

B.- PRODUKZIO GARAPENENKO, ETA PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA TEKNOLOGIKOKO PROIEKTUAK (II. KAPITULUA)

1.- PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA.

Deskribatu, gehienez 10 lerrotan, proiektuaren edukiaren laburpena, daturik garrantzitsuenak adierazita.

2.- KOKAPEN ZEHATZA. Ez txertatu maparik eranskinetan.

Deskribatu, gehienez 20 lerrotan, proiektuaren kokapen xehatua.

3.- TESTUINGURUA. Ez txertatu eranskinik.

3.1.- Aipatu herriaren egoera zein den (egoera soziala, ekonomikoa, politikoa eta abar) tokiko-global ikuspegi batetik begiratuta (tokiko erronka eta arazoak dinamika globalekin lotuta).

3.2.- Adierazi zeharkako alderdiei (genero-harremanak, tokiko gaitasunak, parte-hartzea, antolamendua, eskubideen ikuspegia eta jasangarritasun ekologikoa) dagozkien diagnostikoak eta/edo azterketak (kuantitatibo eta kualitatiboak), proiektuaren esparruan.

4.- AURREKARIAK.

Argitu ekimena nondik sortu den eta zer nolako identifikazio-prozesua parte-hartzailea jarraitu den (erakunde eskatzaileak(ek) eta, bere kasuan, tokiko erakundeak(ek), xede-biztanleriak betetzen duten eginkizuna zehaztuta). Aipatu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak alde aurretik lagundutako prozesuen aurrerapen, erronka eta ikaskuntza esanguratsuenak, baita bere jarraipenaren egokitasuna

5.- JUSTIFIKAZIOA. Ez txertatu eranskinik.

5.1.- Esku hartzeko estrategia azaldu, egindako azterketa eta diagnosien arabera.

5.2.- Justifikatu egokitasuna xede-biztanleriari dagokionez eta pobreziari aurre egiteko strategiari dagokionez.

5.3.- Justifikatu esku-hartzea indarrean dagoen garapenerako lankidetzaz-plangintzen esparrua kontuan hartuta eta ekimenak dakartzan alderdi berritzaileak azpimarratuz.

6.- ESPERIENTZIA. Ez txertatu eranskinik.

6.1.- **Erakunde eskatzaileak** proiektuaren gaiarekin loturik izan duen **esperientzia** azkeneko bost urteetan. Gehienez 5 ekimen adierazi daitezke:

Erakunde eskatzaileak proiektuaren gaiarekin lotuta izan duen esperientzia (2019-2023)					
HASIERAKO ETA AMAIERAKO URTEA	TITULUA	LABURPENA	TOKIKO ERAKUNDEA (HERRIALDEA)	DIRU-LAGUNTZAK EUROTAN	FUNTSEN JATORRIA

- **Ordezkaritzen** kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) ordezkartzaren esperientziari buruzko informazioa soilik aipatu behar da; EAetik kanpoko beste egoitza batzuetatik kudeatutako esperientzia ez da aintzat hartuko.
- Erakunde eskatzaileen partzuergoa izanez gero, partzuergoburuari dagokion informazioa **soilik** bete behar da.

6.2.- **Erakunde eskatzaileak** proiektu edo ekimenak tokiko erakundearekin batera kudeatzen izan duen **esperientzia** azken bost urteotan. Gehienez 5 ekimen adierazi daitezke. **Soilik tokiko erakundea egonez gero bete behar da.**

Erakunde eskatzaileak tokiko erakundearekin izandako esperientzia (2019-2023) baterako proiektu edo ekimenetan					
HASIERAKO ETA AMAIERAKO URTEA	TOKIKO ERAKUNDEA	TITULUA	LABURPENA	ZENBATEKOA EUROTAN	FUNTSEN JATORRIA

- **Ordezkaritzen** kasuan, EAeko ordezkartzaren esperientziari buruzko informazioa soilik aipatu behar da; EAetik kanpoko beste egoitza batzuetatik kudeatutako esperientzia ez da aintzat hartuko.
- Erakunde eskatzaileen partzuergoa izanez gero, partzuergoburuari dagokion informazioa **soilik** bete behar da.
- **Tokiko erakundearen arteko partzuergoaren** kasuan, kideatutako erakunde bakoitzari dagokion informazioaz osatu ahal izango da.

6.3.- **Tokiko erakundeak** proiektuaren gaiarekin loturik izan duen **esperientzia** azken bost urteetan. Gehienez 5 ekimen adierazi daitezke. **Soilik tokiko erakundea egonez gero bete behar da.**

Tokiko erakundeak proiektuaren gaiarekin lotuta izan duen esperientzia (2019-2023)				
HASIERAKO ETA AMAIERAKO URTEA	TOKIKO ERAKUNDEA	TITULUA	LABURPENA	ZENBATEKOA EUROTAN

- **Tokiko erakundeen arteko partzuergoaren** kasuan, kidetutako erakunde bakoitzari dagokion informazioa osatu ahal izango da.

6.4.- **Tokiko erakundeak** proiektuaren xede-biztanleriarekin izan duen **esperientzia** azken bost urteetan. Gehienez 5 ekimen adierazi daitezke. **Soilik tokiko erakundea egonez gero bete behar da.**

Tokiko erakundeak xede-biztanleriarekin duen esperientzia (2019-2023)					
HASIERAKO ETA AMAIERAKO URTEA	TITULUA	TOKIKO ERAKUNDEA	LABURPENA	XEDE-BIZTANLERIA (kolektiboa eta eremu geografikoa)	ZENBATEKOA EUROTAN

- **Tokiko erakundeen arteko partzuergoaren** kasuan, kidetutako erakunde bakoitzari dagokion informazioa osatu ahal izango da.

7.- XEDE-BIZTANLERIA. Ez txertatu eranskinik.

7.1.- Xede-biztanleria identifikatzea eta ezaugarriak aipatzea.

Kolektiboa	Kokapen geografikoa	Ezaugarriak (gaitasunak/ahulguneak)	Pertsonak guztira	Emakumeak	Gizonak	Ez bitarrak	Adin-taldea

7.2.- Hautaketa-irizpideak. Deskribatu xede-biztanleria hautatzeko irizpide zehatzak eta, gainera, xede-biztanleria zuzena osotzen duten kolektibo desberdinek duten ahalmen biderkatzailea azaldu.

7.3.- Hala badagokio, emakumeen eta ikusezin eta/edo gutxiengo bihurtutako kolektiboen (dibertsitate funtzionala, sexuari, adinari, kulturari, erlijioari... lotutako dibertsitatea) parte-hartzea bermatzeko berariazko neurrien berri ematea.

8.- ESKU-HARTZEAREN LOGIKA.

8.1.- Marko logikoaren matrizea. Gehienez 20 adierazle zehaztu behar dira matrize osorako. **Ez txertatu eranskinik.**

- Helburu orokorra. Deskribatu esku-hartzearekin lortu nahi den helburu zabalena.
- Helburu espezifikoa. Deskribatu xede-biztanleriarengan lortu nahi den eragin positiboa, testuinguruaren azterketan deskribatutako funtsezko arazoak konpontzeko.
- Helburu espezifikoaren lorpen-mailaren adierazleak: adierazle zehatzak deskribatzea, egiaztagarriak eta neurgarriak.
- Adierazleak egiaztatzeko iturriak: adierazleak zenbateraino betetzen diren egiaztatzeko zer iturri baliatzen diren zehaztuko da –inkestak, zuzeneko behaketa, argitalpenak eta abar–.
- Kanpoko faktoreak edo hipotesiak. Deskribatu kontuan izan beharreko hipotesiak edo kanpoko faktoreak, betiere proiektuaren kontrol zuzenetik kanpokoak izanik, gertatzeko aukera handia badute eta, kasuak kasu, proiektuak arrakasta izatean eragin erabakigarria izan badezakete.
- Lortu nahi diren emaitzak. Proiektua gauzatzean lortuko diren emaitzak deskribatzea, betiere egindako jardueren ondoriozkoak izanik eta helburu espezifikoa lortzen lagunduko dutela.
- Emaitzen lorpen-mailaren adierazleak: adierazle zehatzak, egiaztagarriak eta neurgarriak deskribatzea.
- Oinarrizko lerroa. Proiektuaren diseinuan aurreikusitako adierazle guztien lehen neurketa, abiapuntua edota proiektua gauzatzeko den testuinguruan dagoen hasierako egoera zehaztuz.

HELBURUA	ADIERAZLEAK	OINARRIZKO LERROA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK	KANPOKO FAKTOREAK/ HIPOTESIAK
HELBURU OROKORRA XXX				
HELBURU ESPEZIFIKOA XXX	1. AOE 1. HE:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...
	2. AOE 1. HE:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...

1. EMAITZA XXX	1. AOE 1. E:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...
	2. AOE 1. E:		1. EI. 2. EI.	1.H: 2.H:

		

2. EMAITZA	1. AOE 2. E:		1. El. 2. El. ...	1.H: 2.H: ...
XXX	2. AOE 2. E:		1. El. 2. El. ...	1.H: 2.H: ...

8.2.- Aurreikusitako jarduerak eta horiek garatzeko beharrezko baliabideak. Deskribatu zehazki emaitzak lortzeko zer ekintza aurreikusi diren, eta ekintza bakoitza garatzeko behar izango diren baliabideak: metodologikoak, teknikoak eta materialak, baita giza baliabideak (soilik jarduera hori gauzatzeko beharrezkoak badira giza eskubide horiek) zehaztu beharko dira.

<p>-Jarduera:</p> <p>-Deskribapena:</p> <p>-Metodologia:</p> <p>-Baliabide materialak eta teknikoak, formakuntzakoak, errotazio-funtsaren memoria, karpeta teknikoak, bideragarritasun planak/azterketak, kanpo kontratazioak, ikerketak, etab. (eranskinak dagozkien jarduerari lotu):</p> <p>-Hala badagokio, giza baliabideak:</p> <p>-Aurrekontua:</p> <p>-Iraupena:</p>

9.- JARDUEREN KRONOGRAMA. Aurreko atalean deskribatutako jarduerak lehenengo zutabean zerrendatuko dira. X batez adieraziko da jarduera gauzatzeko aurreikusitako epea.

Urtea	1. URTEA				2. URTEA			
Hiruhilekoak	1.a	2.a	3.a	4.a	1.a	2.a	3.a	4.a
1. emaitza								
Jarduerak...								
Emaitza (...)								
Jarduerak (...)								

10.- AURREKONTUA. Osatu aurrekontuaren atal guztiak, ereduaren arabera (aurrekontu orokorra, banakatua eta jardueren arabera). **Txertatu eranskina.**

11.- PROIEKTUA GAUZATZEKO BEHAR DIREN BALIABIDE METODOLOGIKOAK, INSTITUZIONALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

11.1.- Baliabide metodologikoak. Azaldu zein ikuspegi metodologikoak hautatu diren, nola egokitzen diren testuingurura, xede-biztanleriara eta jardueretara, eta komunikazio horizontalaren zein jakintzen dekolonialitatearen sustapenean nola laguntzen duten. Halaber, indartutako gaitasunak erreplika egiteko eta praktikan jartzeko proposamen eta tresnak ematen diren azaldu.

Eranskinean honako dokumentu hauek baino ez dira aztertuko: prestakuntza-planak.

Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioko baliabideak erabiliz gero, zehaztu.

11.2.- Giza baliabideak. Deskribatu postuaren profila eta ekimena gauzatzen parte hartuko duten langileak (tokiko erakundearen langileak eta, hala badagokio, erakunde eskatzailearen langile eta atzerriraturiko langileak) zer funtzio/eginkizun beteko dituzten. Gainera, formakuntzetan beste pertsona eta/edo agente/instanzia batzuen laguntza izango bada – Euskadin zein beste lurraldeetan-, zehaztu. Honetaz gain, pertsona bakoitza zer erakunderi lotuta dagoen identifikatu.

Ez txertatu CVrik.

Eranskinean honako dokumentu hau baino ez da aztertuko: atzerriraturiko langileen memoria (hala badagokio, derrigorrezkoa).

11.3.- Baliabide instituzionalak (agintari publikoen, tradizionalen, eta abarren babesa deskribatu). Azaldu ekimena nola txertatzen den erakunde eskatzailearen eta tokiko erakundearen(*) indarreko plan estrategikoetan. Balego, erakundeen ingurumen politika azaldu eta honek proiektuarekin duen harremana; edo bestela, proiektuko jardueren eragin negatiboa saihesteko eta arintzeko hartuko diren neurriak azaldu. Hala badagokio, proiektuaren etorkizuneko jasangarritasunerako konpromiso ekonomikoak zehaztu.

(*) Tokiko partzuergoaren kasuan, partzuergoko kide den edozein tokiko erakunderen plan estrategikoak aipatu ahal izango dira.

Eranskinean honako dokumentu hauek baino ez dira aztertuko: abalak eta konpromiso instituzionalak.

11.4.- Erakunde eskatzaileak tokiko herrialdean ordezkari izatekotan, izango duen eginkizuna azaldu.

12.- ETENGABEKO IKASKUNTZA ETA EBALUAZIOA. **Ez txertatu eranskinik.**

Deskribatu etengabeko ikaskuntzako ekintzak: sistematizazioak, ebaluazioak, ikaskuntzak sortzeko espazioak, eta abar. Gainera, azaldu xede-biztanleriarekin aurrerapenak eta zailtasunak partekatzeko komunikazio jarduerak, sortutako ikasketak gizarteratzeko jarduerak, eta abarrerako jarduerak badaude.

Kanpo-ebaluazioa aurreikusten bada, deskribatu, labur-labur, helburua, irizpideak, metodologia, gizarteratzeko mekanismoak eta gomendioei erantzuteko mekanismoak, edo ikaskuntzak nola txertatuko diren.